



HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIA ORTZAIZE HERRIA

2025eko maiatzaren 6ko saioa

Bi mila eta hogeita bost urteko maiatzaren seian arratseko zortzietan biltzera deiturik, herri honetako Herriko Kontseilua frantses legeak behartu kopuruan bildu da, bilkuren ohiko lekuan Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza saioko lehendakari izanik.

Presente ziren: CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Ezin etorriak: AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, IDIART Claudine

Saioko idazkaria: DACHAGUER Peio

Deialdiaren data: 2025eko maiatzaren 2a

Afixatze data: 2025eko maiatzaren 2a

5. ERABAKIA: ZUBI ALDE ZUBIAREN KONPONTZEKO MERKATUAREN ESLEIPENA (1.1 Nomenklatura)

Auzapezak adierazi du, prozedura egokituko deialdia antolatu duela Zubi Alde zubiaren konponketa lanak eginen dituzten enpresen hautatzeko.

Eskaintzak aztertu-eta, merkatua honela esleitzea proposatzen du:

- SARL DUHALDE MICHEL enpresa 380 000 €-rentzat zergaz kanpo.

Herri Biltzarrari proposatu dio horretaz erabakitzea, eta mahai gainean ezarri ditu eskuratu diren eskaintza guztiak eta horien analisi txostena.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik, aho batez:

- BAIMENA EMAN DIO auzapezari merkatua SARL DUHALDE MICHEL enpresari esleitzeko 380 000 €-rentzat zergaz kanpo,

- BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari, horri loturiko erabaki oro hartzeko eta agiri oro izenpetzeko, besteak beste deialdiaren moldatzea, baldin eta zenbateko orokorra ekintza horretarako onartu diren kredituen azpitik egoten bada.

Jardunean diren kideak: 15
Presente zirenak: 12
Adierazi diren bozkak: 12
ALDE: 12
KONTRA: 0
ABSTENTZIOA: 0

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZE, 2025eko maiatzaren 6an

Auzapeza:

Jean-Marc OÇAFRAIN

Honako akta indarrean izanen da,
2025eko maiatzaren 12an argitaratu edo jakinarazi ondotik
eta egun berean suprefekturara igorri ondotik.